

REXHEP MEIDANI EZ DA OPOSIZIOAREKIN BILDUKO HORREK BORTIZKERIA ALBORATU ARTE

Fiskaltzak urratsak egin ditu Berisha auzipetzeko

■ Sali Berisha Alderdi Demokratikoko buruzagiari inmunitatea kentzeko eskatu dio Albaniako Fiskaltzak Legebiltzarrari, «estatu-kolpe saioa eta matxinada armatua egiteagatik». Berishak ez du etsiko Fatos Nano lehen ministro kargutik kendu arte.



Sali Berisha —ezkerretik, bigarrena—, Alderdi Demokratikoko jarraitzaileak agurtzen eta garaipenaren keinua egiten.

DIMITRI MESSINIS / AP

Agentziak / Tirana

LEGE BILTZARREKO Aginduen Batzordeak atzo Sali Berisha eskuineko oposizioako Alderdi Demokratikoko (AD) buruzagiari eskatu zion azken egunetako gertakizunak azaltzeko. Legebiltzarrak inmunitatea kendu edo ez erabaki behar zuen. Izan ere, Albaniako Fiskaltza Nagusiak Legebiltzarrari eskatu zion inmunitatea kentzeko Berishari eta ADko lau kideri, «estatu-kolpe saioa eta matxinada armatua egiteagatik».

Albaniako Gobernuak herenegun eskatu zion Fiskaltzari «estatu-kolpe saioaren» arduradunak auzipetzeko. Fatos Nano lehen ministro sozialistak berak atzo, azken lau egunetan jendarean egindako lehen agerraldian, berretsi zuen Berisha estatu kolpea egiten saiatu zela. Hala ere, azken hitza Justiziak duela gaineratu zuen: «Ez naiz fiskala, ezta Aginte Batzordeko lehendakaria edo Poliziako burua ere, baina Kabineteak uste du Berisha dela errebolta erantzulea». Nanok ultimatum eman zion Berishari jarraitzaileek armak utz ditzaten. Nanok esan zuenez, hala egin ezean, legea aplikatuko

zaiela eta legeak debekatu egiten duela armak edukitzea.

Albaniako Zigor Kodeak biltzen du matxinada armatuan parte hartzen dutenek 15 urtetik 25era bitarteko kartzela zigorra jasoko dutela, eta matxinadaren antolatzaileek hil arteko kartzela edo heriotza zigorra.

«Nano traidorea bota arte» Berisha, ordea, ez zuten beldurtu Gobernuaren eta Fiskaltzaren ekimenek. «Herri altxamenduak ez du atzerapausorik egingo eta behera botako du Nano traidorearen diktadura», esan zuen eskuineko oposizioako buruzagiak. ADko buruzagiak jarraitzaileei dei egin zion Tiranako kaleetan manifestazioa egiteko, eta 2.000 lagun inguru bildu zituen. Ekitaldi horretan Berishak erabat baztertu zuen herrialdetik ihes egingo duela.

Berishak esan zuen Nanok oraindik ez dituela Azem Hajdari-
ren odolarekin zikindutako eskuak garbitu. «Hala ere, Armada mobilizatuko du legegaren aurka, drogaren capo-en diktadura neokomunista berriro ezartzeko».

Istiluak joan den igandean hasi ziren Albanian. Larunbatean Hajdari hil zuten tiroz, ADk Tira-

nan duen egoitzaren aurrean. Berishak berehala Nanori leporatu zion ekintza eta ADko jarraitzaileak kalera irten ziren lehen ministro sozialistaren dimisioa exijitzeko. Segurtasun indarren eta jarraitzaileen arteko borroketan hiru lagunek galdu dute bizia.

Albanian egoera atzo Poliziaren esku zegoela adierazi zuen Ilir Cano Barne ministroak. Tirana hiriburuan gaua lasaia izan zen. Baina, badaezpada ere, Legebiltzarrak Barne Ministerioaren ardurapean utzi zituen Armadako zenbait komando eta polizia militarra.

Rexhep Meidani Albaniako lehendakariak Gobernuari eskatu zion krisiarekin amaitzeko plan bat lantzeko, eta oposizioari dei egin zion negoziatzen hasteko bortizkeria alde batera utzita. Lehendakariaren bozeramaileek argitu zuten Meidani ez dela eskuineko oposizioako ordezkariekin bilduko, bortizkeria erabat alboratu bitartean. ADk gidatzen duen eskuin koalizioak Meidaniri eskatu zion herenegun «gobernu tekniko» berri baten ardura hartzeko Albania krisitik ateratzeko.

Nazioartea kezkatuta azaldu da Europako herri txiroenak bizi duen krisiarekin. Europako Ba-

tasunak Herbert Grubmayr austriarra igorri zuen Tiranara Gobernu sozialistaren eta eskuineko oposizioaren arteko auzian bitartekari lana egiteko. Ipar Atlantikoko Tratatuaren Erakundeak (NATO) gatazkan murgilduta dauden aldeei eskatu zion «probokazio ekintzak» alboratzeko.

Nazio Batuetako kasko urdinek, berriz, patruilak ugaritu dituzte Mazedonia eta Albania arteko mugan, nahiz eta «ezhoiko ekintzarik» iragarri ez duten.

Kosovo iparraldeko azken erasoen ondorioz 11 pertsona hil dira

■ 34 gorpu aurkitu dituzte Glodjanen, eta ustez serbiarrak dira hildakoak

Agentziak / Pristina

SERBIARREN eta Kosovoren Askapenerako Armadako (UCK) kideen arteko erasoek atzo jarraipena izan zuten Kosovo iparraldean, eta azken 24 orduetan gutxienez 11 pertsona hil dira.

Bestalde, Kosovoko Eskubide eta Gizakien Askatasunerako Albaniako Batzordeak adierazi zuen lau gizon, 19 urtetik 60ra artekoak, hil zituztela Stari Trgen, haietako baten etxean. Hiltzaileek lau gizonak hil ondoren etxea erre egin zutela adierazi zuen Batzordeak. Serbiako komunikabide estatalek, bestalde, adierazi zuten UCK-k Stari Trgen eginiko erasoen ondorioz polizia bat hil zela. Kosovoko Informazio Zentroak berriz esan zuen Dobratinetik zuzendutako serbiarren bonbardaketak ez direla eten. Azken egunetan izan diren eraso horien ondorioz, zibil ugari etxetik alde egin eta leku «seguruetan» babes bila ari dira. Errefuxiatuen Aldeko Nazio Batuen Goi Komisariatuak uste du azken zazpi hilabetetan Kosovok jasan dituen erasoen ondorioz 270.000 pertsona baino gehiagok alde egin dutela beren etxetik. Gainera, Goi Komisariatuak adierazi duenez, errefuxiatu horietatik 50.000 inguru kalean daude momentu hauetan. Bestalde, Glodjane inguruan 34 gorpu aurkitu dituzte, eta ustez serbiarrak dira hildakoak. Uste dute, halaber, serbiar horiek Kosovoko albaniarrek hil zituztela.

Kosovoko egoerari irtenbide bat aurkitzeko hainbat ahalegin egiten ari dira nazioartean. EEBBek eta NATOk, esaterako, Belgraden aurkako ofentsiba diplomatiko bat proposatu dute. Erresuma Batuak, bestalde, bat egin du Europako Batasunak hitzartutako aire bahimenduari-
kin. X

OÑATI • ZUBIKOA KIROLDEGIAN

Mikel Laboa

Irailak, 19 larunbata
gaueko 10:30etan

Laguntzailea:  Oñatiko Udaletxea

Sarrerak: 1.200 pta. Aurrez: 1.000 pta.